



Jendetza, Gabonen amaierako kabalkadan

Urrietan eta Andoainen herrikide asko irten zen kalera, Errege Magoen etorrera ikustera. Andoainen haizeteak baldintzatu zuen kalejira / 6-11

AIURRI

Urtezaharreko lasterketak

Herri giroa areagotzeko ekimen apartak dira Andoainen eta Urrietan antolaturikoak / 6-11

Jexux Mari Otaegi "Suso" andoaindarra gogoan hartu zuteneko eguna, Unai Azpiroz lagunaren hitzetan / 12

Kultur arloko hitzordu ugari urtarrilean, Andoainen eta Urrietan / 14

Aiurrikide izatea **%30 merkeago**

Aiurrik *lehentasunezko mezenasgo jarduera izendapena* jaso du Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskutik.

Aiurriko harpidedun zaren horri, *zerga onurak ezarriko zaizkizu 2024ko jardueran* Aiurriri egin diozun ekarpenarengatik.

Horrenbestez, zure kuota **%30 merkatuko** zaizu errenta aitortpena egiterakoan.



Okm:
batzen gaituen
distantzia

Egin zaitez aiurrikide

AIURRI
KIDE



Aiurri astekariko ibilbidea gertutik ezagutzen du Jon Ander Ubeda Aiurriko zuzendariak. AIURRI

"Aiurriko lantaldea ez da kexan kateatuko"

JON ANDER UBEDA AIURRIKO ZUZENDARIA

Urnietako Udalak Aiurri astekariari bideratutako dirulaguntza murrizteari ekin dio, bigarren urtez jarraian. Aiurriko zuzendariak hainbat zehaztapen egin ditu, honaino iritsita

Zergatik da paradoxikoa?

Alderdi baten jokabidea oso bestelakoa izaten ari delako udalerrri batetik bestera. Andoainen, aurreko agintaldian, EAJ-PNVren esku zegoen Euskara Normalizatzeko Batzordea, eta Aiurriko partida bere agintean eguneratu zen. Korporazio kide guztien oniritziarekin, gainera. Are gehiago, aztergai hori hizpide izan zuten batzordean, parte hartzera gonbidatu ninduten. Urnietan egoera oso bestelakoa da: alderdi bera da, baina guztiz jokabide ezberdina erakusten ari da.

Zein izan daiteke arrazoa?

Bitxia badirudi ere, ez daukat oso argi erantzuna. Denetik entzuten ari naiz inguruan, eta dagoeneko bigarren urtez jarraian gertatu da: hori ebidentzia bat da. Aldaketa erabatekoa izan da: lau urteko hitzarmen egonkor batetik urteko 10.000 euroko murrizketa pairatzera igaro gara. Iaz, murrizketa justifikatzeko garaian, turismoa begirako estrategia berria hizpide izan zuten. Aurten, elkarrekin guztien ekarpenari eusteko nahikoa lan izan dutela adierazi digute. Erabaki irmo bat hartu dute, bistakoa da, eta azalpenetan ez dira gehiegi luzatzen.

Irudi esanguratsua utzi zuen abenduaren 19ko iluntzeak: Aiurriko babesa adierazteko elkarretaratzea egin zuten eragileek San Juan plazan. Bien bitartean, udaletxean, urteko azken osoko bilkuran, 2025eko aurrekontuak onartu ziren.

Bigarren urtez, jarraian, egoera berean izan gara. Urnietako eragile asko elkartu zen plazan, protestan: auzo elkarreketako kideak, kultur eta kirol taldeetako ordezkariak, euskaltzaleak... Horiek guztiak herriaren kohesioan funtsezkoak dira eta Aiurri astekariari funtzio garrantzitsua aitortzen diote.

Zer esan nahi duzu horrekin, komunitatea egiten laguntzen duela Aiurri?

Herri baten kohesioan tokian tokiko hedabidea garrantzi handiko eragilea da. Adibide erraz bat aipatzen hasita, Xoxoka-Goiburu eta Etxeberri plaza ezaugarri soziologiko ezberdinak dituzten biziguneak dira Urnietan. Bi auzo horietako jaien jarraipena egiten dugun aldiro, Urnietako txoko jakin batetik egiten dena udalerrri osora zabaltzen ari gara.

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Urnietako Udalak, bigarren urtez jarraian, Aiurri bideratutako partida nabarmen murriztu du. 2025a abiatu da, baina, ezerean aurretik, nola egin zuen Aiurri astekariak aurrera 2024an?

Kontu ekonomikoez ari bagara, orekak eginetz: udalerrri batean jasotakoarekin eta bestean gututakoarekin. Andoaingo Udalak bere garaian beritu zuen hitzarmena, zeinaren ondorioz 5.400 eurotan eguneratu zen astekarirako partida. Eta Urnietako Udalak, aldiz, 10.000 euroko murrizketa egitea erabaki zuen iaz. Gorabehera horiek osatzeko lagungarri izan dira Urnietako gizarte eragileek eta norbanakoek egin dituzten diruekarpen gehigarriak. Oso eskertuta gaude horiei guztiei. Izan ere, kostuak gorantz doaz eta gure finantzazioa estutuz doa. Orekak egiten gabiltza egoera paradoxiko honetan.

Urnietar guztien arteko kohe- sioan lagungarri izaten ari da Aiurri, beraz.

Eta bada oharkapean igarotzen ari den xehetasuna. Bizi dugun garaia helarazten diogu herri- tarrari, gure jardunaren bitar- tez. Baina, urteen poderioz, Aiurrik bildu dituen lekukotzak, argazkiak eta bideoak Urnietako ondare bilakatzen ari dira. Denborarekin, balio handia izango du orain egiten ari ga- renak.

Eta, horren bidetik, Udal or- dezkariei egin nien aipamena errepikatuko dut elkarrizketa honetan. Zer gertatu zen 2023ko uztailaren 2an Andoainen eta Urnietan? Bada, Frantziako Tourra bertatik bertara igaro zela. Urnietako erdigunea zehar- katu zuen. Historikoa izan zen hura. Badakizu Urnietako Udal Artxiboan zein argazki gorde diren? Aiurrik ateratakoak. Eskaera jaso genuen udaletxe- tik eta bi aldiz pentsatu gabe helarazi genizkien argazkiak. Muxutruk, gainera.

Zuzendari zaren aldetik, nola bizi duzu Urnietan sortu den afera?

Hogei urteko ibilbidea osatu ostean, handia da Aiurri aste- kariarekiko atxikimendua urnietarren eta andoaindarren artean. Iaz, eta, aurten, sasoi honetan, urnietar askoren ba- besa jaso du Aiurriko lantaldeak eta horrek lanean jarraitzeko indarra ematen digu. Finan- tziarioari dagokionez, Urnietako Udalaren aldetik jaso dugun albistea ez da ona eta horrek lantaldea aztoratu du. Baina ez diote konpromisoari muzinik egin eta astekaria argitaratuz eta alor digitalean lan eginez jarraitu dute.

Bestalde, zuzendari naizen aldetik, atsekabetuta nago Urnietan, hainbat girotan, liskarra sortu delako. Tristura eragiten dit horrek, sortu diren hainbat haserrealdi eta ezinikusien jakitun naizelako. Ez da atsegina eta, zintzoki esanda, honaino iristea ez zen beharrezkoa. Zor- ritzarrez, iaz, eta, aurten ere bai, gure hedabidea xextrarako hizpide bilakatu da hainbat forotan. Elkarrekin eta laguntalde bereko pertsonak elkar hasere- retu dira eta, beste batzuetan, bakea nagusitu dadin, afera tabu bilakatu da. Atsekabetuta nago, alde horretatik.

Gaia politizatu dela, bada hori uste duenik.



Xabier Lasa Bergara, Alba Cabrera Jauregi eta Jon Ander Ubeda Goikoetxea Aiurri astekariko lankideak, bilduta. AIURRI

Bakanen batek tentazioa du egunotan Aiurri joera politiko batera edo bestera lerratzeko. Hori kontu zaharra da eta, benetan, oso pertsona gutxiren obsesioa da hori. 2024ko asebetze inkestaren emaitzari erreparatuta, "Iruditzen zaizu Aiurri politikoki plurala dela?" galderari 116 lagunek eman zioten erantzuna. Horietatik guztietatik, soilik, 9k "Ez" erantzun zuten. Datuak, ikusten duzun bezala, usteak baino argi- agoak dira.

Politizazioaz baino gehiago, erabaki politikoez ari gara. Nābardura bat egin nahiko nuke, honaino iritsita. Andoainen EAJ-PNVk Aiurrirako diru- partida eguneratzea proposatu eta, aho-batez onartzen denean, hori erabaki politiko bat da. Bada, Urnietan aurkakoa erabakitzeko proposamena mahai- gainean jartzen denean, kasu horretan ere erabaki politiko baten aurrean gaude.

Euskararen aurkako neurritzat hartu du batek baino gehiagok Urnietan gertatzen ari dena.

Saihestezina da gure hedabi- dearen eta euskararen arteko lotura egitea. Zergatik gara, bada, ezagun, Urnietan? Eus-

"KASU BAKANA DA HEDABIDE BATI TAMAINAKO MURRIZKETA EZARTZEN ZAIOLA"

karaz eta Urnietako kontuez ari garelako. Eta, noski, diru- partida nabarmen murriztuta, Aiurriko egoera estutuz doa, baina hortik EAJ-PNV euska- raren aurka dagoela esatea gehiegizkoa iruditzen zait. Sor- tu den afera bideratuko dugu noizbait eta espero dut berandu baino lehen izatea. Solaskide ditudan Gobernu taldeko kideak euskaltzaleak direla zalantzarik ez dut eta argi daukat ere ez dugula euskaltzale guztiok zer- tan bat egin. Hori sana da, hein batean.

Baina hori esanda, heldu die- zaiogun hizkuntza-politikari. Gaurkoz, Urnietan, euskara eta herria uztartzen dituen tresna iraunkorra eta masiboa da Aiurri astekaria. Astero-astero, buzoietara iristen da. Eta, urte osoan, gailuetako pantailietara. Gobernu taldeak hartu duen erabakiaren ondorioz, Aiurri ahultzen ari da. Nik galdera bat botako dut, zabalera: ideia ona al da Urnietan euskara eta herria uztartzen dituen tresna iraunkorra eta masiboa ahul- tzea?

Galdera horrek badu, behintzat, hartzaile jakin bat. Ba al duzue harremanik Udal gobernuarekin? Gobernu taldearekin eta Urnie- tako Uri Buru Batzarrarekin, biekin. 2023ko abenduaren 21eko batzarraldian 2024ko udal aurrekontuei bidea eman zieten. Bertan ezarri zen Aiurrirako lehen murrizketa, 10.000 eurokoa. Osoko bilkura hartan, ikusleen

artean, jende ugari elkartu zen eta, kanpoaldean, dozenaka la- gun gehiago. Bilkura bukatu orduko, udaletxean bertan, jel- tzaleen arduradunengana hur- bildu nintzaian eta bilera bat egitea eskatu nien. Geroztik, 2024 osoan, Batzokian, udale- txean eta HK10 hotelean bilerak eta jardunaldiak egin ditugu. Biltzeari, hitz egiteari eta entzuteari garrantzi handia eman diot. Uste dut egoera bideratze- ko hori dela gutxienekoa. Nire jardunean, lantalde bat eta Aiurri sortu zuen euskara el- karte bat –Larramendi Bazku- na eta Iñistorra Urnietako Eus- kaltzaleen Biltzarra– ordezkatzen ditut. Ni lanerako nago eta, zoritxarrez, ez dut lortu egoera bideratzea eta horregatik ere triste nago. Kontziente naizela- ko bi urtez jarraian hartzen den erabakia joera bilakatzen dela, baina ez dut etsi nahi. Hitz egiten jarraitzea eta ego- ra bideratzea lehentasunezkoa da niretzat.

Zer nolakoak izan dira bilkura ho- riek?

Hitz egiteko eta entzuteko au- kera izan dugu, bileretan parte hartu dugun guztiok. Diskre- zioari zor natzaio, baina esan

"HITZ EGITEN JARRAITZEA ETA EGOERA BIDERATZEA LEHENTASUNEZKOA DA NIRETZAT"

dezaket aldartea ona izan dela. Lehendik ere elkar ezagutzen dugu eta garai bateko eta egun- go jeltzaleekin harremanari eusten diot. Saiatu naiz egoera bideratzen, baina gaurkoz ez dugu lortu.

Eta zein iritzi duzu gainerako al- derdien jokabideaz?

Afera piztu arte, Euken Gar- mendiarekin ez nuen inoiz hitz egin, Urnietako albisteen ja- rraipena lankideek egiten du- telako. Iazko udazketatik hona, behin baino gehiagotan elkartu naiz harekin eta denbora-tarte horretan gure jardunari lotu- riko informazio ugari eskatu dit. Interesa eskertu diot, beti. Bi urteotan, beren argudioekin, Aiurriko partida eguneratzea eskatzen ari dira. Eskaera ho- rrekin bat egin zuten Andoain- go alderdi politiko guztien sinto- nian daude, beraz.

PSE-EEko Herme Gonzalez, bestalde, 2004tik ezagutzen dut. Ez da itzulinguruka dabilen horietakoa eta, hogeitau urteotan, rol ezberdinak jokatu ditu. Opo- sizioan oso zorrotz aritu da eta, orain, gobernu ardurak ditu. Beren sailetan arrastoa utzi nahi dute. Baina, bestalde, eus- kara EAJ-PNVren ardurapean dago eta sozialistek leialtasuna zor diete. Politikan, gobernu- akordioetan, hori ohikoa da.

Zein izan daiteke irtenbidea? Urnietatik burua altxa eta kan- pora begiratu beharko genuke, lehenik eta behin. Sektorean bada Hedabideen Mahaia ize- neko foroa eta bertan, azken urteotan, lanketagai izan da euskarazko hedabideen bali- abideak eta baldintzak duintzea. Nābardurak nābardura, sinto- nia dago euskarazko hedabideak, Eusko Jaurlaritza eta Aldundiak ordezkatuta dauden mahai sek- torial horretan. Sintonia on hori Eusko Jaurlaritzako aurrekontuetan gauzatu da eta datozen hiru urteetako dirula- guntza-deialdian hobekuntza bat emango da. Hori guztia akordio politiko zabal baten ondoren iritsi da. Foro horretan, Urnietako udal finantziarioaren kasu zehatza aipatuko bagenu, harridura sortuko luke, kasu bakana baita hedabide bati ta- mainako murrizketa ezartzen zaiola.

Gurea zorigaitzoko salbuespe- na da. Bi adibide jarriko ditut, kasurako erreferentzia egokia ematen digutenak: Amasa →

→ Villabonak Urnietako biztanle kopuru-beretsua du eta euskarazko tokiko prentsara partida bikoitza bideratzen du. Usurbilek eta Urnietak ere, antzeko tamaina dute eta hango hedabideak guk jasotzen dugunaren hirukoitza jasotzen du.

Urnietan Aiurrirako partida beti berbera izan da azken hamabost urtetan: 36.000 eurokoa. Zenbat igo da KPIa hamarkada batean? Eta zenbat milioitan igo da udalaren aurrekontua? Dirulaguntza eguneratzeko atea jo genuen, iaz, eta eguneraketa-eskaerari murrizketa batekin erantzun zion Gobernu taldeak. Inoizko laguntza apalena jasotzen ari gara orain, Urnietako Udalaren aldetik. Aterabidea bilatzea eta aurkitzea ezinbestekoa da. Bila gabiltza, baina ez dago soilik gure esku.

Hamarkada batean bizi maila garestitu da, eta lan egiteko modua ere bai.

Digitalizazioaren ondorioz Aiurriren informazio jariora eraldatu eta biderkatu egin da. Diru-partida beretsuarekin, astekariari eutsi eta Aiurri.eus urte osoan martxan dagoen informazio-ataria da. Multimediaranzko joerarekin, gainera. 2021etik hona, hirukoitzu egin dugu Urnietako bideo eta argazki-bildumen kopurua. Eta sare sozialen bitartez belaunaldi berrietara iristen ari gara. Paperean zein digitalean, euskarazko tokiko hedabideak erreferentzia gara. Hartzailegoari begira biderkatu egin du Aiurrik bere informazio-jarioa.

Atzera begira jarrita lan handia egindakoak gara eta, aurrera begira, gogorik ez da falta. 2019an webgune berria txertatzeko inbertsio handi samarra egin genuen. 2020an, pandemia garaian, astekariari eutsi eta webguneko jariora nabarmen handitu genuen. Akaso, baten batek ez dio egindakoari erreparatu nahi baina, bestalde, inguruotan Aiurrirekiko identifikazioa oso handia da. Urnietar askok hori adierazi digute, hainbat modutan.

Zergatik, orduan, halako murrizketa Urnietan?

Erantzuna argi banu! Ez daukat oso argi, egia esan. Izan daiteke baten batek pentsatu duela "bertan goxo" gaudela Aiurrikoak. Finantzaio ekonomikoa beste bide batzuetatik lantzerantz bultzatu nahi gaituzte,



Aiurriko hainbat lankide TOKIKOMen Batzar Orokorrean, iazko azaroan. TOKIKOM

akaso, erabaki drastiko horrekin. Azter ditzagun gure finantziario iturriak. Publizitatea da horietako bat. Zein da tokiko merkataritzaren egoera orokorra, 2024an? Udalak murriztu diguna hortik lortu ahal izatea ezinezkoa da. Hori, egun, edozeinek uler dezake tokiko merkataritzaren testuinguru zaila ezagututa.

Beste finantziario-iturria urteko-kuota kobratzea da. Bazkidearena eta harpidedunarena hogeitaz urtez Aiurri indarrean izan den aukera bat da, eta horrek Beterrri-Buruntzan aitzindari bilakatzen gaitu. Eta, bai, baditugu bazkide eta harpidedun fidelak. Bide horretan sakondu nahi dugu 2025ean, baina ez da erraza izango. Iaz, asebetetze-inkestak eta eztabaida fokalak antolatatu genituen. Talde fokal batean hainbat herritako gazteak elkartu genituen. Laburbilduz, haietaz Aiurri informazioa eskuratzeko bide bat da, egunero-egunero sare sozialen bidez kontsumitzen dutena. Beren pantailako denbora-lerroan gustuko eta intereseko albiste gehiagoren artean ageri dira Aiurriko albisteak. Funtzio publikoa betetzen duela aitortzen

"AIURRIREKIKO IDENTIFIKAZIO-MAILA OSO HANDIA DA ANDOAINEN ETA URNIETAN"

diote Aiurriri eta horren finantziarioa erakundeei ere bada-gokiela iritzi diote. Deigarria da, on line bidezko merkataritza bereganatu duen belaunaldia delako. Ziur nago talde fokal horretan parte hartu zuten gehientsuenek ordainpeko hainbat aplikazio eta plataforma dituztela. Tokiko hedabideen informazioagatik ordaintzea, aldi, pentsaezina zaie. Hori guztia diot finantziario-iturri propioak lantzeko zailtasunak agerikoak direlako.

Urnietako agintariak finantziario ekonomikoa beste bide batzuetatik lantzerantz eramanez nahi bagaituzte, prozedura bestelakoa izatea gustatuko litzaidake. Esaterako, hausnarketa partekatua eginez.

Aiurri astekariaren izaera juridikoa ere hizpide izan da, azken hilabeteotan.

Bai, eta hori argitzea komeni da. Aiurri astekariaren izena da eta hura argitaratzeko izen juridikoa Erroitz da. Erroitzen jabea Larramendi Bazkuna-Inñistorra da. Noiz sortu zen egitura juridikoa? 2004an. Eta Aiurri astekaria noiz hasi zen argitaratzen? 2004an. Urte berean, biak. Aurreko urte luzetan, Erroitzekin sinatu ziren lankidetzaz hitzarmenak eta hori ez zen kritikarako edo mesfidantzarako argudiotzat erabili. Erroitz martxan jarri zenetik lankidetzaz hitzarmenak sinatu ditugu Aldundiarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin, eta hori

ez da inoiz arazo izan. Horregatik, Aiurriren atzean enpresa izaera duen erakunde bat garela eta gure xedea dirua egitea dela aurpegiatzea gaizto samarra da. Are gehiago, Gipuzkoako Foru Aldundiak 2024ko lehentasunezko mezenasgo jardueratzat hartu duenean Erroitzen jarduera. Horri esker, Aiurriko bazkideei harpidetza-sariaren % 30 itzuliko zaie errenta-aitorpenean. Beraz, Urnietako Udal Gobernu taldearen erabakia justifikatu nahi duenak askatasun osoa du horretarako, baina ez du edozein argudiok balio.

Bigarren urtez jarraian, murrizketa pairatu berri du Aiurrik. Eta, orain, zer?

Lantaldeak 2024ko konpromiso-maila berari eutsiko dio. Erakunde gisa, bikaintasunean hobetu nahi dugu: Berriki, praktika-onen erakusle, Kudeaketa Aurreratuan Diploma eskuratu berri dugu Bilboko Euskalduna Jauregian eginiko ekitaldian. Egun hartan, Eusko Jaurlaritzako lau sailburu ziren mahai-buru. Bestalde, astekari-erredaktoreen artean bagara bi C2 euskararen goreneko gaitasun-maila erdietsi du-

"FINANTZARIO ITURRI PROPIOAK LANTZECO ZAILTASUNAK AGERIKOAK DIRA"

gunak. Eta, urtea amaitu aurretik, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak laguntza-deialdi berrirako lanketa egin du. Simulazio ariketarako Gipuzkoako bi hedabide aukeratu zituzten eta horietako bat Aiurri izan zen. Txosten mardula aurkeztu genuen, lan handia hartu eta gero, eta Lakuan eginiko bi orduko aurkezpenean inpresio ona eragin genuen Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren eta Gipuzkoako Foru Aldundi-ko Hizkuntza Berdintasuneko lantaldeen aurrean. Lehen esan dut, ni lanerako nago. Eta lantaldea ez da kexan kateatuko. Denborarekin, Urnietako Udalaren egoera bideratu beharko litzateke. Eta, ez badugu lortzen, agerian geratuko dena Urnietako agintarien jokabide atzerakoa izango da. Sasoiko da-goelako Aiurri, eta aurrera begira jarrita.

Berriki, Aiurri astekarian irakurri ahal izan dugu: Eskualdeetako Hedabide Multimedien "EHM estrategia" delakoa aurkeztu zuen Jon Sarasuak. Euskara indarberritzeko, Euskaltzaindiak lau alorretan jarri du, bereziki, azpimarra: lan eremua, aisialdi antolatua, hezkuntza eta hedabideak. Eta honako hau xe zioen: "Ikusten duguna da euskarak eskualdeko eskalan lidergoa hartzeko aukera daukala. Hortaz, eskala nazionala abandonatu gabe eta hori ere indartuz eta sinergiak sortuz, estrategia honek proposatzen duena da eskualdeetan inpaktu handiko multimedia taldeak sortzea, telebista, irratia, Internet -sare sozialetara loturaren kin- eta papera batuta. Adibide gisa Goiena aipatu genezake". Andoainen eta Urnietan funtzio hori Aiurri hedabidea ari da betetzen, astekariarekin eta edizio digitalarekin. Ditugun baliabideekin, paperezko edizioari eutsi eta sarean erreferentziatzeko hedabidea gara. Lehen aipatu dut: argazki-bildumen eta bideoen ekoizpena biderkatu egin dugu, eta, horrez gain, Urnietako etxebizitza guztietara iristen gara. Eskualdeetako Hedabide Multimedien estrategia indartzera eta sustatzera datoz Euskaltzaindia eta Eusko Jaurlaritza. Andoingo Udalak bat egingo du, ziur, eta Urnietan ere gertu izatea nahi dugu.



Aiurriko Jon Ander Ubeda zuzendariak Jose Luis Diaz Euskaliteko presidentearen eskutik jaso zuen diploma. EUSKALIT

Kudeaketan egindako lan onari saria, Aiurriri

Euskalit Eusko Jaurlaritzak sustaturiko fundazioa da, lehiakortasunean beharrezkoak diren hobekuntzak bilatzen erakundeak orientatzea helburu duena. Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatuta, Aiurrik urte osoko trebakuntza prozesua gainditu du

Erredakzioa ANDOAIN

Kudeaketa Aurreratuaeren Ereduan Aiurrik egindako lana saritu zuen Euskalit fundazioak, abenduaren 11n Bilboko Euskaldun antolatutako ekitaldian. EA Erako propio garatu duen eredu hainbat esparrutatik ekarritako kudeaketa-konzeptuak bateratu ditu: erabateko kalitatea, bikaintasuna kudeaketa, berrikuntza eta enpresen erantzukizun soziala, besteak beste.

Sei elementu nagusi oinarri dira xede horretan. Honatx, Euskaliten hitzetan jasotakoa:

- Pertsonengan proiektu partekatatu bati atxikita egotearen sentimendua sorraraztea.
- Enpresa bezeroengana orientatzea, balio-ekarpen bereizgarria eginda.
- Berrikuntza enpresaren esparru guztietan aplikatzea.
- Gizartearekiko konpromisoa bultzatzea.
- Epe luzerako ikuspegia sortzea, argiro zehaztutako estrategia baten bidez gauzatu dena.

- Interes-talde guztientzat gogobetegarriak izango diren emaitzak lortzea.

Hainbat ekimen osagarri

2024an, xede horiek bete asmoz, talde fokalak eta asebetetze-inkestak egin ditu irakurleekin, bazkideekin eta bazkide ez direnekin. Horiez gain, hainbat berrikuntza txertatu ditu administrazioan, astekariaren edizioan eta sare sozial nahiz webgunearen audientziaren jarraipenean. Gizarteari begira, astekaria argitaratzeaz gain, ekimen ugari antolatu ditu: pailazoaren emanaldia, kantu-afaria, bertso afaria... Gehienetan, askotariko gizarte eragileekin batera. Gazteen formakuntza sakontzeko garaian, bestalde, Andoaingo ESCIVI eta Urnietako Salestar ikastetxeetako ikasleak praktikan aritu dira Aiurrin. Horrez gain, astekariko hainbat eduki (komiki-tirak, txirrindularitza kronikak...) Euskal Herri osoko hedabideetan argitaratzen dira.

EUSKALITeko Komunikazio arduraduna den Nerea Obietak horrela azaldu dio Eta Kitto hedabideari Kudeaketa Aurreratuaeren ereduaren xedea zein den: "2022an sortu zen euskal hedabideei zuzendutako programa berezia, beti ere hedabideen lehiakortasuna hobetzeko ginarrekin, zein kudeaketaren profesionaltasuna hobetzeko helburuarekin. Bizkaiko Foru Aldundiak bultzatuta sortu zen, baina laster gainontzeko Aldundiak batu ziren, eta, horiekin batera, Hizkuntza Politika Saila. EUSKALIT bidelagun izan da urte hauetan. Hiru urteko programa planteatu genuen, azkeneko urtean kanpo kontrastea jaso eta, baldintzak betez gero, Kudeaketa Aurreratuaeren Diploma lortzeko asmoz, gure Kudeaketa Aurreratuaeren Euskal Sariaren eskemako lehenengo urratsa alegia".

Aiurrik, etorkizun hurbilean, kudeaketan sakontzeko konpromisoa du.



Aiurri astekaria, hamaboskaria, lkusbera eta urteko egutegia. AIURRI

Errenta aitorpenean %30eko hobaria izango du Aiurrikideak

Aiurri lehentasunezko jardueratzat izendatu du Gipuzkoako Foru Aldundiak

Erredakzioa ANDOAIN

Aiurri hedabidea lehentasunezko jardueratzat hartu du Gipuzkoako Foru Aldundiak. Ondorioz, Aiurrikideek %30eko hobaria izango dute udaberriko errenta aitorpenean. Onuradunek ez dute agirik aurkeztu behar, automatikoki egingo baitira izapideak.

Aldundiak interes orokorreko xedeen esparruan lehentasunezko jardueren diren jardueren zerrenda bat egiten du urteko, entitate onuradunak zein diren eta jarduera horiei zer beharkizun eta baldintza bete behar dituzten zehaztuta. Euskararen esparruko lehentasunezko jardueretan herri eta eskualde mailako euskarazko hedabideak zehazten dira. Horiek horrela, Aiurriren argitaratzaile den Erroitze lehentasunezko jarduera izendatzeko pausoak eman zituen eta horiek urtearen amaie-

ra aldera onartuak izan ziren. Beraz, Aiurrikideek 2024. ekitaldian egindako ekarpenaren arabera onura fiskal bat jasoko dute aurtengo errenta aitorpenean. Urnietako harpidunek 40 euroko ekarpena egin zuten, iaz. Eta, Andoaingoek, 45 eurokoa. Horren % 30a bueltatuko dio Ogasunak udaberriko errenta-aitorpenean. Hots, 12 euro urnietarrei eta, 13,5 euro, andoaindarrei. Hobari horren onuradun izateko Aiurrikideek ez dute inongo izapiderik egin behar, automatikoki egingo baita itzulketa. Zehaztuta agertuko da, gainera, errenta-aitorpenean agirian.

Bazkideren batek informazio gehiago beharko balu, Aiurri-ekin harremanetan jarri beharko du (idazkaritza@aiurri.eus e-postara mezua bidaliz edo 943 300 732 telefono zenbakira deituz).





Kalearen alde banatan jendetza elkartu zen Urnietan. AIURRI

Kabalkada jendetsua, Gabonei amaiera emateko

Hitzorduz beteriko egitarau-sorta zabala izan da igaro berri diren Gabonetan, abenduaren erdialdetik hasi eta joan den asteburura bitarte. Errege Magoen etorrerak itxi zuen Gabon sasoia, urtarrilaren 5ean

Erredakzioa URNIETA

Harrera beroa jaso zuten herrian Meltxor, Gaspar eta Baltasar hiru Errege Magoek, urtarrilaren 5ean, ohiturak agindu legez. Beste herri askotan ez bezala, zaldi gainean, Lobera baserri aldetik gerturatu ziren herrigunera, Txanbolin txistulari bandaren laguntzaz.

Arratsaldeko 17:30ean egin zuten hitzordua, artean egun argiz, eta geroz eta jende gehiago batu zen hiru protagonista magikoen kabalkadara, herriari itzulia eman bitartean.

Hala, gozoki pila banatu zituzten gerturatu ziren bizilagunen artean, eta, herriguneari barrena ibili ostean, San Juan plazan biribildu zuten hitzordua, adinaren araberako opariak emanez.

Gutun-bilketa

Desfile handia baino zertxobait lehenago, arratsaldeko 16:30ean,

San Miguel elizara hurreratu ziren Meltxor, Gaspar eta Baltasar, beren laguntzaileekin, banan-banan haurren gutunak jasotzera. Irrika handiz eman zizkieten hiru gonbidatu bereziei beren opari-zerrenda.

Egitarau zabala, Gabonetan

Igande iluntzeko hitzorduak amaiera eman zion, horrela, herrian abenduaren erdialdetik Gabon sasoiaren bueltan osatu den egitarauari: San Tomas azoka, Gazttxearen aldeko trikipoteoa, Sarobeko ikuskizunak, Gaztelekuko ekintzak, Olentzoreroren eta Mari Domingiren etorrera, Gabonetako kantu-kalejirak, Joselontxos txaranga, Kirol gala, kanpaikaden entsegua, San Silbestre lasterketa... Argazki eta bideo-sorta zabala osatu du Aiurrik, ekitaldi horien guztien kronikak biltzeko asmoz. Horretarako, kanal berezia sortu du, webguneko atal nagusian.



Kabalkadaren hasiera, Errege Magoak herrigunera iritsi aurretik. AIURRI

Gutun-bilketa, Urrietako elizan



Errege Magoek haurren gutunak jaso zituzten elizan. AIURRI



Haur, nerabe eta familia askoren artean zirrara eragiten du kabalkadak. AIURRI



Haur taldea, gutuna erregeei emateko zain. AIURRI



Haurren esanak betetzen ahalegindu ziren hiru Errege Magoak. AIURRI



Itzulian, Txanbolin txistulari taldeko kideak bidelagun izan zituzten. AIURRI



Urrietako
udala



Gaztetxearen alde, urte zaharreko lasterketan

Korrika eta mozorrotuta agurtu zuten urnietarrek 2024 urtea, Poxta Zaharrek antolatutako San Silbestre lasterketarekin. 200 parte-hartzaile inguru izan ziren hitzorduan eta tokiko merkatarien babes zabala jaso zuen



Bazkalostean hasita, herrikide ugari elkartu zen San Juan plazan. AIURRI



Martxosoenak izan ziren, zalantza izpirik gabe. Dozenaka argazki gehiago ikusgai daude aiurri.eus webgunean. AIURRI



Txikiak, hasteko prest. AIURRI



Aldarrikapenerako tartea izan zen Urtezaharreko lasterketan. AIURRI



Mozorro bikainak ikus zitezkeen. AIURRI



Lagun artean egiteko lasterketa polita da Urtezaharrekoa. AIURRI



AIURRI

Etxeberri, atzera kontaktetan

Urte Zaharreko hamabi kanpaikaden unean, ezusteko desatsegirik ez edukitzeko, aurretiaz, entsegua egin zuten herrikideek, Etxeberri plazan, bertako auzo elkarteak deituta. Aitzakia ederra bilatu zuten bizilagunek, ospakizunaz gozatzeko, izan ere, bien bitartean, DJ Flowing disko-jartzaileak girotu zuen iluntzea.



AIURRI

Gabon kantari

Egape Ikastola, Magale-Salestarrak ikastetxea, Urnietako Gaztetxea, Kantazaun... Askotariko hitzorduak izan ziren abenduaren 24an Urnietan. Eguraldi kaskar samarra eduki arren, ez zen oztopo izan herrikideentzat, kalera atera eta Gabon kantuan aritzeko. Goizean goizetik hasita eta iluntzera bitarte, kale-giroaz gozatzeko aukera izan zen Urnietan.



AIURRI



Haizeteak baldintzatutako kabalkada Andoainen

Lastargiak itzalita egin zuten ibilbidea Errege Magoen laguntzaileek. Haize-bolada bortitze ondorioz sugarrak azkar batean barreiatzen ziren eta, ezusteak ekiditeko, itzaltzea erabaki zuen antolakuntzak



Argazkiak ateratzeko aukera izan ohi da udaletxeko adierazpena amaitu ostean. AIURRI

Erredakzioa ANDOAIN

Hasierako eta bukaerako hitzordu seinalatuetan, eguraldiak berebiziko garrantzia izan du aurtengo Gabonetan. Abenduaren 24a euripean igaro zen eguna eta gabon kantari aritzeko komeriak izan zituzten herriko taldeek. Aita Larramendi ikastolako eta La Salle Berrozpe ikastetxeko taldeek, esaterako, estalpe bila aritu ziren goiz osoan. Bastero Kulturguneko ataria, Kontsejupea eta Juanita Alkain plazaxoko etxabeak izan ziren kantari aritzeko bidean topatu zituzten tokiak.

Haizetea, Kabalkadan

Eguraldi iragarpenak iragarri bazuen ere, bereziki bortitza izan zen Andoainen. Belabi kalean, ohi bezala, pajeak lastargiak piztuta ari ziren osatzen ibilbidea baina haize-ufaden ondorioz sugarrak berehala barreiatzen ziren kalean. Arriskua saihesteko, lastargiak itzaltzea erabaki zuen antolakuntzak. Eta kalejira bere horretan egin zen. Izan ere, Errege Magoek jendetza zuten zain.



Baltasar erregea, herritarrei hizketan. AIURRI



Errege Magoak, txistulariekin eta udal korporaziokideekin batera. AIURRI

San Juan Bataiatzailea egoitzan



Errege Magoak eta laguntzaileak, zahar etxearen atarian. AIURRI

Bisitariak Urtarrilaren 5eko jardunaldiari hasiera eman ohi diote Ama Kandida etorbidean, adinekoren egoitzan. Bertan diren egoiliarrei bisitaldia egin eta opari bana emateko aukera baliatu ohi dute Meltxorrek, Gasparrek eta Baltasarrek.



Errege Magoak egoiliarrekin hizketan aritu ziren. AIURRI

Egoiliarrak Bertan bizi direnekin solasean aritzeko aukera baliatu zuten hiru protagonista nagusiek. Hitz egiteko gogoz egoten da egoitzan bat baino gehiago. Eta, hizketan hasita, eskaerak ere egiten dizkiete erregeei.



San Juan Bataiatzailea adinekoren egoitzako hainbat langile. AIURRI

Langileak Adinekoren egoitzan aritzen den lantaldeak harrera bikaina egin zuten bisitaldian hurbildutakoei. Ezohikoak izaten dira horrelakoak eta, horregatik, arreta berezia jarri zuten San Juan Bataiatzailea adinekoren egoitzako langileek.



Labores Arantzaren erakusleihoak bisitari ugari izan ditu, egunotan. AIURRI



Gaboneko emanaldi berezia egin zuten herriko txistulariek, abesbatzako abeslariak eta gonbidatu bereziak. AIURRI



Urki dantza taldeak gaztain-jatea antolatu zuen Juanita Alkain plazan. AIURRI



Olentzerori eta Mari Domingiri gutunak helarazteko aukera izan zen Etxeberrieta plazan. AIURRI



Usadiozko ekitaldia bihurtu da Punttukaren bertso-poteoa. AIURRI



Olagain txistulari taldekoek emanaldi berezia eskaini zuten San Juan Bataiatzailea adinekoen egoitzan. AIURRI



Allurralde kiroldegia Gabonetako Haur Parkea bilakatu zen. AIURRI



Olentzero eta Mari Domingi, hilaren 24an, Kale Nagusian. AIURRI



Zakur-lera, Urtezaharreko lasterketako mozerro onena. AIURRI



Udal Musika Eskolako abesbatzen emanaldia, aurten, San Martin elizan izan zen. Jendetza elkartu zen. AIURRI



Urtezaharreko lasterketan dortsal guztiak agortu ziren. AIURRI



Gabonetako lehen emanaldietakoa, Udal Musika Eskolako txikienen eskutik. AIURRI



Gora Kaletxiki Txaranga kalez kale ibili zen abenduaren 24an. AIURRI



San Tomas eguna ospatu zuten Olagainen. AIURRI

TXOKOTIK ZABALERA

UNAI GAZTELUMENDI ARANDIA MARRAZKILARIA

URTE
BERRI
ON!

JASOTA BEZALA

UNAI AZPIROZ ANDOAIN



Sei hilabete igaro dira Jexux Mari Otaegi "Suso" andoaindarra hil zenetik eta haren lagunek egun osoko festa egin zuten.

Pittitti festa

Joan den larunbatean, urtarrilak 4, Jexux Mari Otaegi "Suso" andoaindarra zenaren oroimenez, omenaldi hunkigarri bat antolatu zen. Eguna Onddolarrera egindako mendi-irteerarekin hasi zen, zeinean parte-hartzaileek Susoren errautsak utzi zituzten, naturan, bakean.

Oroitzapen-egunak Andoaingo Gaztetxean jarraitu zuen, bazkaria antolatu baitzen.

Lagun eta herritar ugari bildu zen Suso gogoratzeko, istorioak partekatze eta oroitzapenak bizirik mantentzeko. Giroa beroa eta hurbila izan zen, elkarrekin igarotako uneetan oinarrituta.

Arratsalde partean, jai biziberritu zen, kontzertu-sorta batekin. Bertaratutako talde ezberdinek Gaztetxea musikaz eta energiak bete zuten, festa-giro alai sortuz. Emanaldi horiek Susori

egindako omenaldi ederra izan ziren, bere izaera eta pasioa islatuz.

Hala ere, ekitaldiak ez zuen soilik laguna oroitzeko balio izan, baizik eta komunitatearen loturak indartzeko eta memoria kolektiboaren indarra gogorarazteko ere. Antolatzaileek eskerrak eman zizkieten bertaratu eta ekarpena egin zuten guztiei, egun hunkigarri eta ahaztezina izan zelako.

GORA ETA BEHERA



Lastargiak itzali zituzten Belabi kalean. AIURRI



Erabaki arduratsua

Urtarrilaren 5ean haizetearen aurrikuspina iragarrita zegoen eta bereziki bortitza izan zen Andoain aldean. Errege Magoen Kabalkadan, Belabi kaleko lehen metroetan, pajeek lastargiak piztuta ekin zioten ibilbideari. Baina sugarrak azkar batean barreiatzen ziren inguruan eta, arriskua ikusita, itzaltzeari ekin zioten. Erabaki arduratsua hartu zuten, bai horixe. Ikusgarritasuna galdu zuen kabalkadak, lastargirik gabe. Baina, egoera horretan, zuhurtiaz jokatzeko garrantzi handikoa da.



Lastargiak itzalita egin zuten aurtengo kabalkada, Andoainean. AIURRI

w w w . a i u r r i . e u s

AIURRI

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



• Iritzia • Postontzia

Mikel Iturriaren kirol-ibilbideari saria, Urnietako Kirol Galan

SARIKETA Bigarren urtez jarraian, urteko kirol jardueran nabarmendutako herrikideak omendu zituzten

Erredakzioa URNIETA

Amets Carrera, Oier Duran eta Borja Seco (judoa); Iraitz Oiarbide eta Lazaro Oiarbide (ehiza); UKE senior neskek (futbola); UKE senior eta jubenil mutilak (eskubaloia); Olatz Pagola (arrau-

na); Julen Gabirondo (sega); Nerea Arruti (aizkora); Imanol Ansa (erremontea); Iruñe Mateos (atletismoa); Erronka berezia; Idoia Esnaola (korrikalaria); Kirol ibilbidearen saria: Mikel Iturria (txirrindularitza).



Aurtengo Kirol Galako protagonistak, taldeko argazkian. AIURRI

NIRE USTEZ

XABIER LASA LASTERKETAKO PARTE-HARTZAILEA

Bejondeizuela, Poxta Zaharreko gazteak!


Zorionak, horren fin antolatzea-gatik Urtezaharreko lasterketa! Poza ematen du urteko azken egunean jendez gainezka ikustea San Juan plaza, normalki nahiko hutsik egoten dena astegun arratsalde batean.

200 korrikalaritik gora, haur, gazte eta heldu! Egiazki, mozerro festa eta kirolaren praktika herrikoia modurik naturalenean uztartzea lortu du Poxta Zaharreko, 2013an lasterketa abian jartzeari ekin zionetik.

Urnietaren herrigintzan eta bere gizarte-kohesioan txalagarria den pausoa ematen du Poxta Zaharreko Urtezaharreko arratsaldean ere, nahiz ekimen txikia iruditu itxura batean.

Geroz eta profesionalizatuagoak eta burukratizatuagoak diren lasterketen panoraman, herrikoitasunaren esentziari eusten dio Urnietakoak. Baina horrek ez du esanahi, inondik ere, edozein modutan antolatzen duenik.

Alde horretatik, argi utzi behar da Poxta Zaharreko lan polita eta arduratsua egin duela aurturaz ere, izan boluntarioak mobilizatuz (ibilbideko errepideak mozteko eta premiazkoak diren beste makina bat lan txiki burutzeko), izan herri dendariekin elkarlanean opariak pilatuz eta sarituz, izan... Bi eskaera txiki luzatuko nizkieke antolatzaileei, ekimena hobetzen lagunduko luketenak, nire iritzirako. Bata, ea arindu dezaketen izen-ematea, astunegia egiten baita itxaronaldia ia ermitaraino iristen den ilara horretan (are gehiago lasterketa atariko nerbioak dira dela-eta). Eta, bigarren, hausnartu dezaten ea merezi ote duen "San Silbestre" izena ipintzea lasterketari, bai baita garaia benetan laikitze gizartea, erlijio kutsuko elementu sinbolikoetatik askatuz, gizariteak bul-tzatutako jai eta ekitaldi zibilen izendegitik hasita.



AIURRI

Eraberritze-lanak, igerilekuan

IGERIKETA Abenduaren 26an hasita, Andoaingo Allurralde igerilekuko instalakuntzak erabat itxita daude eraberritze-lanetan ari direlako. Konponketa lanak egiten ari dira sabaialdean eta, gauzak ondo, datozen egunotan zabaltekoak dira instalakuntzak.


LEHIAKETAK Asteburuan abiatuko dira ligako partidak

Futboleko, esaterako, Euskal-dunako lehen taldeak Ubitarten

ariko da Sanpedrotarraren aurka. Partida igandean izango da, 16:00tan hasita. Eskubaloian, senior mutilen Euskal Ligan, Saiekoren kantxan ariko dira. Neskek ez dute partidarik.

Mugertza memoriala

KROSA Elgoibarko nazioarteko kros lasterketa aski ezaguna da Euskal Herrian. Zumeatarra elkarteko bi kide izan ziren bertan: Aimar Sukunza eta Lide Lizeaga. Lehenak helduekin parte hartu zuen eta bigarrenak, berriz, 16 urte azpikoetan. Andoaingo klubak bien ekimena txalotu du: "Biek lasterketa bikaina burutu zuten, zuten guztia emanez"




ALBERTO BENITO MEAZA

Etxekoak, garaile

ESKUBALOIA Andoaingo CUP txapelketan, hiru egunez jarraian, giro polita gailendu zen. Antolakuntza ere bikaina izan zen. Euskal Herri osoko taldeek parte hartu zuten eta, finalean, etxekoak garaile: Andoaingo Leizaran MacDonaldis taldea gailendu zen, finalean Malkaitz taldea 7-5 irabazita. Horri esker, ekainaren 25etik 29ra Granollers Cup lehiaketan ariko dira.



LEIZARAN



ALBERTO BENITO MEAZA

HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

ZERBITZUA

ANDOAIN Arreta bulegoa

Ataria herritarren arretarako zordutegi berria ezarri dute. Astelehena-ostirala: 08:00-14:30. Osteguna: 08:00-15:30. *Urtarrilean hasita.*

ANDOAIN Ordutegia

Udazkenean, Bastero zineman, proba modura jarritako ordutegiari jarraipena emango diote. Gaueko emanaldirik ez da izango, beraz. Eta, astelehenero, ikuslegoaren egunean bina saio: 17:00etan eta 19:30ean. *Urtarrilaren 11tik aurrera.*

URNIETA Informazioa

Urnietako eta eskualdeko kide ugariko familiei dituzten abantailen eta onuren berri emango du Hirukide elkarteak. 09:30-14:00 / 15:30-18:00. Pintore Kalea, 3, bilera gela. *Urtarrilak 14, asteartea.*

ODOL-EMAILEAK

ANDOAIN Urteko lehen saioa

Urteko lehen odol-emate txanda izango da hilaren 13an, Andoaingo osasun-etxean. Interesa dutenek ondorengo telefono zenbakira deitu beharko dute egunean bertan txanda hartzeko: 943 00 78 84. Hitzordua 16:30ean abiatuko da, iluntzeko 20:30ak arte. *Urtarrilak 13, astelehena.*

URNIETA Urteko lehen saioa

Urteko lehen odol-emate txanda izango da hilaren 22an, Gaztelekuan. Interesa dutenek ondorengo telefono zenbakira deitu beharko dute egunean bertan txanda hartzeko: 943 00 78 85. *Urtarrilak 22, asteazkena.*

TXOTX GARAIA

ASTIGARRAGA Irekiera-ekitaldia Sagardoaren Lurraldeak antolatuta, XXXII. Sagardo Berriaren Eguna 2025 iristear da. Aurtengo gonbidatua Gure Zirkua izango da. *12:00, Erribera Kulturgunea. Urtarrilak 15, asteazkena.*



Xabier Flamarique, Xabier Artieda eta Aritz Bengoa aktoreak. PARAISO

URNIETA Kutxartean

Bartolomeus eta Komino pozik bizi dira batak bestea duelako alboan, harik eta hirugarren pertsonaia bat agertzen den arte, zeinak kutxak lapurtuko dizkien eta beste bien arteko adiskidetasuna proban jarriko duen. Familian ikusteko antzezlanak.

Urtarrilak 12, igandea. 17:30, Urnieta. Sarobe.

MUSIKA

ANDOAIN Janus Lester

"Lore" diskoaren aurkezpen-kontzertua. *Urtarrilak 17, ostirala. 19:30, Bastero.*

ANDOAIN Musika klasikoa

Arkaitz Mendoza, Naroa Intxausti: "Musika akuarela". *Urtarrilak 24, ostirala. 19:30, Bastero.*

PAILAZOAK

ANDOAIN "Ostirala iritsi da"

Porrotx, Marimotots eta lagunak taula gainera igoko dira ikuskizun berriena egitera. *Urtarrilak 26, igandea. 11:00, Bastero.*

TAILERRA

URNIETA Mundu digitala

"Mundu digitaletan seme-alaben bidelagun" tailerra antolatu du udalak. Saiok urtarrilaren 14an,

21ean, 28an eta otsailaren 4ean eskainiko dira. Arratsaldeko 18:00etatik aurrera. *Hainbat egunez. Urnieta.*

ANTZERKIA

ANDOAIN "Miñan"

Ibrahima Balde eta Amets Arzalluzen liburua oinarritzat harturik, Arte-Drama konpainiak antzezlanak ekoiztu du. *Urtarrilak 31, ostirala. 19:30, Bastero.*


URNIETA "El caso camping"

Misterioa eta suspentsea Kemen teatro amateur konpainiaren eskutik. *Urtarrilak 26, igandea. 19:00, Sarobe.*

ERAKUSKETA

ANDOAIN Mikel Laboa gogoan "Izan liteke konstelazio, izan gabe izar" izenekoak. *Bastero, erakusketa-gela. Azken eguna: Urtarrilak 31.*


ZINEMA

**ANDOAIN****BASTERO**

Vivir el momento
Urtarrilak 11, larunbata. 19:30.
Urtarrilak 12, igandea. 19:30.

Urtarrilak 13, astelehena. 17:00, 19:30.

Sonic 3
Urtarrilak 11, larunbata. 17:00.
Urtarrilak 12, igandea. 17:00.



SINOPSIS

Vivir el momento (We live in time)

Zuzendaria: John Crowley. **Aktoreak:** Andrew Garfield, Florence Pugh, Adam James, Marama Corlett, Aoife Hinds, Grace Molony, Gianni Calchetti, Nikhil Parmar, Heather Craney, Kara Lynch, Kevin Brewer, Robert Eames, Emilija Senavaiyte... **Herrialdea:** Britainia Handia (2024). **Hizkuntza:** Gaztelania. **Generoa:** Drama, maitasuna. **Iraupena:** 107 m.

Ezusteko batek hankaz gora jarriko du bikote-bizitza

Almut eta Tobiasek ustekabeko topaketa batean ezagutzen dute elkar. Bikote-bizitzaren bidez (maitemindu egiten dira, etxe bat eraikitzen dute, familia bat osatzen dute) egia zaila agertzen zaigu. Protagonistek une bakoitza, hamarkada bat hartzen duena, estimatzen ikasiko dute.



andoainDARRA
euskaraz



Jon Osa andoaindarra. AIURRI

Salda beroa eta Euskaldunako egutegiak, Adarramendin

Jon Osak Andoaingo mendi elkartearen aspaldiko ohiturari jarraipena eman zion Urteberri egunean

Erredakzioa ANDOAIN

Andoaingo Euskalduna Mendi-goizale Taldeko Jon Osak motxila ondo zamatuta eraman zuen Adarramendira, Urteberri egunean. Besteak beste, Euskaldunaren 2025eko mendi-irteeren liburuxka mordoa, salda beroaz betetako termoa, bonboiak eta turroiak eraman zituen.

Ez baita ahaztu behar garai batean, Alejandro Gonzalezek gidatuta, ehunka lagunentzat salda banatzen zutela. Gainerakoan, aurten ere, Urnieta, Andoain, Hernani, Lasarte-Oria eta Donostialdeatik hurbildutako mendizale ugari elkartu zen urtarrilaren bateko goizean, Adarramendiko gailurrean.



Juan Ramon Urreiziti, Juan Ramon Sesma eta beste hainbat, Adarramendin. AIURRI



Elutxeta. ELUTXETA

Elutxetak ez du sagardorik ekoiztuko aurrerantzean

Asteazkenetik igandera zabalik izango da, eta botilaratutako sagardoa zerbitzatuko dute

Erredakzioa URNIETA

Urnietako sagardotegiak iragarri duenez, sagardoaren ekoizpena eten egingo du. Ondorioz, ez da txotxetik dastatzeko aukerarik izango. Urte guztian zabalik izango dute, asteazkenetik igandera. Datorren asteko zenbakian, bertako Juanjo Urruzolari egindako elkarrizketa argitaratuko da.

Irekiera-datak:

Urnieta
Oianume: Zabalik.
Altuna: Urtarrilak 22.
Eula: Urtarrilak 24.
Andoain
Gaztañaga: Urtarrilak 17.
Mizpiradi: Urtarrilak 17.

IN MEMORIAM

IÑAKI ERRO ANDOAINGO IRUNBERRI TABERNAKO ZERBITZARIA

Zerbitzari lanetan pertsona atsegina



Euken Villasante eta Iñaki Erro, 2019ko neguan. AIURRI

Erredakzioa ANDOAIN

Ostalaritzan lanean ari diren pertsonak ezagunak izan ohi dira eta, ibilbide luzea egin dutenen kasuan, haiekiko gertutasun handia sortu ohi da. Joan zen urtarrilaren 7an, ezustean, Iñaki Erroren heriotzaren albistea azkar batean iritsi zen Andoainera. Iruñean sortua, urte luzez aritu zen Irunberri tabernan lanean. Duela gutxi, abuztuan, utzi zuen lanpostua eta Irunberriko arduradunek eta bezeroek omenalditxoak egin zitoten. Horren harira, Irunberrikoek hitz ederrak eskaini zizkioten: "Plazera izan da Irunberrirentzat Iñaki gure artean eduki izana. Langile fina eta beti irribarre bat ahoan duela ezagutu dugu. Jarraitu orain arte bezela lanean! Hoberena opa dizugu bide berri

honetan eta, badakizu, Andoainen beti izango duzu tokia, oraingoan barraren beste aldean!"

Neumonia batek haren osasun egoera larriki zaildu zuen, harik eta urtarrilaren 7an zendu zen arte.



Iñaki Erro, abuztuan. IRUNBERRI

SARRERA ENTRADAS

kutxabank
MASTERS
YEARLY FESTA 2024

Urtarrilak 11
Larunbata

16:30etik aurrera
Galarreta Jai Alai
Hernani


1. Partida
GURRUTXAGA • ESKUDERO vs AIESTARAN VII • AIESTARAN VI

Kutxabank Masters Txapelketa (30 tanto)
AZPIROZ vs JABALERA

3. Partida
ANSA II • LARRAÑAGA vs ALDABE • BARRENETXEA IV

JABALERA

Aiurri.eus: Urte osoan zabalik



AIURRI.EUS
ALBISTEAK, ARGAZKIAK, BIDEOAK, AGENDA